



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2025ko hirugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	6
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	12
Eranskina – Indizeak	18
Eranskina – Metodologia	22
Fitxa Teknikoa	25

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantza gutxitu egin da etsipena dela eta
- eta ezkortasuna argiagoa da Europako familien artean




1 EAEko familien konfiantza gutxitu egin da etsipena dela eta

EAEko familien konfiantza apur bat ezkorra eta aurreko hiruhilekoaren antzekoa (-6) izan da hirugarren hiruhilekoan. Badirudi EAEko familiak etsipenean kokatu direla, konfiantzak okerrera egin baitu 2024ko laugarren hiruhilekotik (-2). Une horretan erregistratu zen emaitzarik onena 2022ko lehenengo hiruhilekoaz geroztik.

Hala, EAEko kontsumitzaileen 2025eko lehen hiru hilabeteetako konfiantza 2024ko aldi horretan bertan erregistratutakoa (-4) baino apur bat negatiboagoa da (-5). Hortaz, urteko balantzea 2024koa (-3,5) baino okerragoa izango da ziurrenik.

Nazioarteko politikaren eta politika nazionalaren ziurgabetasunak eta sinesgarritasunik ezak ekarri du konfiantza falta hori, ibilbide ekonomikoaren eta enpleguaren datu positiboak (adibidez, NDFren eta ELGaren aurreikuspenak hobeak dira 2025erako) ez baitira nahikoak izan etsipen horri buelta emateko.




2 | eta ezkortasuna argiagoa da Europako familien artean

Europako familiek ezkortasunean jarraitzen dute (-15). Frantzia maila horren azpitik dago (-18) argi eta garbi eta Danimarka (-13) eta Herbehereak (-14), berriz, Europako batezbestekotik gertu daude. Alemaniak, bestalde, apur bat hobera egin du (-10).

Urteko profil ebolutiboa partekatua da eta posizioak ez dira ia aldatu kasu bakoitzean, apur bat behera edo hobera egitetik harago. Gizarte bakoitzeko familien mesfidantza horrek barne-ziurgabetasuna islatzen du; bi gatazka belikoak ez dira konpondu eta hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak ahulak dira Frantzian (+% 0,6) eta Alemanian (+% 0,1). Herbehereetan (+% 1,2) eta Danimarkan (+% 1,4) apur bat hobeak dira eta Espainian (+% 2,5) eta EAEn are hobeak (+% 2,1).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak¹



1. 2025eko hirugarren hiruilekoko datua behin-behinekoa da. Uztaila-abuztua batezbestekoa

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGIAK

- EAEko familiak ezkorrak dira ekonomia orokorraren bilakaerari dagokionez
- profil ia optimista mantentzen dute enpleguari dagokionez
- profil zuhurra berretsi da familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan
- eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira
- enpleguaren gaineko igurikimenek eta aurrezkiak sostengatu dute konfiantza


3 | EAEko familiak ezkorrak dira ekonomia orokorraren bilakaerari dagokionez

EAEko familiak ezkorrak dira datozen 12 hilabetetarako ekonomia-jarduera orokorraren martxari dagokionez. Adierazlea negatiboa da argi eta garbi (-22) eta profil ezkorra izan du 2024ko laugarren hiruhilekoaz geroztik (-13) –2022ko hirugarren hiruhilekoaz geroztik erregistratzen zen emaitzarik onena izan zen (+3), bereziki positiboa, pandemiatik “ateratzeko efektuaren” isla–.

Ezkortasun horrek datu hauek islatzen ditu: hamar familiatik bostek uste du egoera ekonomikoak okerrera egingo duela (% 48,3; ehuneko -0,8 puntu); hamarretik lauk uste du berdin jarraituko duela (% 42,4; ehuneko +4,1 puntu) eta soilik hamarretik batek uste du hazkunde handiagoa izango dela (% 9,2; ehuneko -3,4 puntu).

Paradoxikoki, eskuragarri dauden datuek (Eustat, Eusko Jaurlaritza) erakusten dute 2025eko EAEko BPGren hazkundea % 2tik gorakoa izango dela. 2024an ez zen zifra horretara iritsi (+% 1,9); hortaz, objektiboki hazkundea duela urtebetekoa baino handiagoa izango da eta hamar familiatik batek soilik aurreikusten du hori. Kontua da: Zer informaziok eragozten dituzte familien aurreikuspen ekonomikoak?

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




4 | profil ia optimista mantentzen dute enpleguari dagokionez

EAEko familiak lan-merkatuaren bilakaeraren gainean dituzten aurreikuspenek erakusten duten posizioa optimista gisa kalifikatu daiteke ekonomia orokorraren martxarekin alderatuta (-22); izan ere, hiru hilabetez jarraian balioak positiboak izan dira.

Horri dagokionez, familien erdiak baino gehiagok uste du langabezia gaur egungoen antzeko mailatan mantenduko dela hurrengo hamabi hilabeteetan (% 54,4; ehuneko +6,3 puntu), laurden batek uste du langabezia jaitsi (% 25,0; ehuneko +6 puntu) egingo dela eta lautik batek (% 20,6; ehuneko +0,3 puntu) uste du igo egingo dela.


Igurikimen positibo hauek bat datoz lan-merkatuaren bilakaerarekin (urtarrila-iraila batezbestekoa). 2025ean, 1.021.009 afiliatu daude Gizarte Segurantzaren eta 106.894 pertsona langabezian. Hortaz, 2024ko aldi horretan baino 10.347 afiliatu gehiago eta 2.483 langabe gutxiago dira. Eta gogoeta hau da: Nola kontziliatzen dira ekonomia orokorraren gaineko igurikimen negatiboak eta enpleguaren gaineko igurikimen positiboak?



5 | profil zuhurra berretsi da familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan

Familien ekonomiaren bilakaeraren gaineko igurikimenek lan-egoeraren gaineko pertzepzioa, diru-sarreraren balantzea, aurre egin beharreko gastuak eta prezioen inpaktua uztartzen dituzte. Oro har, zuhurtziarako joera dute familiak eta familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko indizearen martxa apur bat pesimista da (-9). Hala, 2025erako bilakaera (hiru hiruilekoko batezbestekoa, -8) 2024ko aldi horretakoa baino apur bat okerragoa da (-5).

Paradoxikoki, familien kontsumoaren ibilbidea (Eustat) goranzkoa da: % 2,6 eta % 2,9ko hazkundera izan da 2025eko lehenengo eta bigarren hiruilekokoan eta balioak 2024an erregistratutakoak baino hobeak dira (+% 2,1, +% 2,5, +% 1,9 eta +% 2,2 lehenengo hiruilekotik laugarrenera, urte arteko tasa). Azkenik, badirudi exekutatzen dutena baino familiako ekonomiaren agertoki okerragoa aurreikusten dutela pertsonek, haien kontsumoaren dinamismoak erakusten duen moduan.




6 | eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira

EAEko familien aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenek profil argia mantendu dute azken bi urteetan: 2025eko hirugarren hiruhilekoan (+4) azken zazpi hilabeteetako baliorik onenetako bat izan dute.

Izatez, EAEko familien ia erdiak (% 49,7) uste du hurrengo hamabi hilabeteotan aurreztu egingo duela, bereziki heren batek ziur aurreztuko duela dioelako (% 29,3). Familien beste erdiak, aldiz, seguru asko edo ziur ezingo duela aurreztu uste du.

Bestalde, EAEko familien % 75ek dio azken 12 hilabeteetan aurreztu egin duela (% 17,3k nahikoa edo asko) eta % 25ek ez du batere aurreztu. Bi emaitzen konbinazioak, aurrezteko asmoarenak eta egindako aurrezkiarenak, berresten du zuhurtzia dagoela aurrezkiaren gainean eta EAEko familia gehienen kaudimen finantzarioa nabarmentzen du.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



7 | enpleguaren gaineko igurikimenek eta aurrezkiak sostengatu dute konfiantza

Urteko hirugarren hiruhilekoko emaitzek erakusten dute EAEko familien konfiantzak aldaketarik gabe jarraitzen duela (-6) eta oraindik neutraltasunera hurbildu gabe jarraitzen duela. Lau indize partzialen bilakaerak eragin du emaitza hori:

- Ekonomia orokorraren bilakaerari dagokionez, ezkortasun argia (-22) ikus daiteke. Emaitza hori erabat bereizita dago langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimen positibotik (2); izan ere, bi adierazleek "noranzko berean" mugitzea espero daiteke.

Baliteke "albistee" (ezkorrak izan ohi dira) oztopatu izana ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak, nahiz eta datu ekonomikoek hazkunde ekonomiko positiboa aurreikusi. Kontrara, enpleguan espero den bilakaera bat dator ezagutza zuzenagoarekin (ingurune pertsonalean gertatzen dena), afiliazioaren maximo historikoekin eta langabeziaren pixkanakako beherakadarekin.

- Bestalde, familiek zuhurtzia handiagoa dute familien ekonomiaren bilakaerarekiko (-9), agian, etxeko kudeaketak gorakada inflazionista handiari aurre egin behar izan diolako (2021etik). Hala ere, exekutatzen duten aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimena mantendu dute (-4), kaudimen finantzarioa argudiatuz.


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2022	2023	2024	IVH-24	IH-25	IIH-25	IIIH-25	Aldea	
Familien konfiantza	-11	-9	-4	-2	-4	-6	-6	0	▶
Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-13	-19	-21	-22	-1	▶
Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-4	-6	-9	-9	0	▶
Langabeziaren bilakaera	-1	-4	2	5	5	4	2	-2	▶
Aurrezteko gaitasuna	-2	-2	2	3	1	4	4	0	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen bilakaeraren gaineko ezkortasuna mantentzen da
- erosteko unearen inguruko balorazioa hobetu egin da, baina oraindik negatiboa da
- erosketa handien gaineko igurikimenak hobetu dira eta positiboak dira
- etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoa sendoa da
- oro har, kontsumoaren eta inbertsioaren igurikimenek hobera egin dute apur bat




8 prezioen bilakaeraren gaineko ezkortasuna mantentzen da

EAEko familiek ezkorrak izaten jarraitzen dute prezioen bilakaeraren gaineko igurikimenari dagokionez (-18) eta azken hiru hiruhilekoetako okertze-ideia indartu dute (2025eko lehen eta bigarren hiruhilekoan -15 eta -18).

Hala, lau familiatik hiruk aurreikusten du prezioak azken hamabi hilabeteetan baino gehiago igoko direla (% 38,2; ehuneko -3,1 puntu) eta hamarretik ia bostek uste dute erritmo berean igoko direla (% 47,2; ehuneko +5,2 puntu). Bi familia baino gutxiagok uste du mantsoago igoko direla (% 17,6; ehuneko -2,2 puntu).

Igurikimen ezkor hori inflazioarekin bat dator, ez baita jaisten eta % 2ren gainetik baitago. Hala, 2025eko abuztuko KPlak (+% 2,7 eta +% 2,8, EAEko eta Estatuko urte arteko tasa) gora egin du apur bat apirila eta ekaina arteko balioei dagokienez (+% 2,2 eta +% 2,6). Hala ere, hilabeteko batezbestekoari dagokionez, 2025a (+% 2,5 eta +% 2,9) ez da 2024a bezain inflazionista izaten ari (+% 3,1 eta + % 3,3). Hala eta guztiz ere, familientzat oso erabakigarria da dagoeneko oso altuak diren prezioen gaineko pertzepzioa.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsoneen %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

9 | erosteko unearen inguruko balorazioa hobetu egin da, baina oraindik negatiboa da


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

EAEko familiek erosketa handiak egiteko oraingo unearekin lotutako balorazio negatiboa (-13) egin dute; baina aurreko hiruhilekoko baina hobea da (-23). Hortaz, urteko behin-behineko balantzea (hiru hiruhileko, -17) ez da 2024koa bezain negatiboa (-23).

Hirugarren hiruhileko honetan, murriztu egin da erosteko unearen gaineko balorazio neutroa egin duten familien taldea (% 59,1; ehuneko -2,8 puntu) eta erdia baino gehiago izaten jarraitzen dute. Bestalde, handitu egin da une ona dela uste duten familien taldea (% 13,9, ehuneko +6,1 puntu), baina une txarra dela uste dutenen erdia dira (% 27,0; ehuneko -3,3 puntu). Hala ere, talde hori murriztu egin da.

Erosterako unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago.

Erosterako unearen balioztapena¹




10 | erosketa handien gaineko igurikimenak hobetu dira eta positiboak dira

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Erosketa handien gaineko igurikimenen indizea finkatuz joan da eta emaitza positiboa erregistratu du hirugarren hiruhilekoan (2), aurreko hiruhilekoko hobetuz (+2 puntu). 2025eko balantze probisionala positiboa da (hiru hiruhileko, 2) eta urrundu egin da azken hiru urteetako balio negatiboetatik (2022, 2023 eta 2024ko lehen hiru hiruhilekoetan -9, -7 eta -2).

Emaitza horren arrazoia da hobera egin duela erosketak berdinak izango direla uste duten pertsonen taldeak, baina batez ere, erosketa gehiago egingo dituztela uste dutenen taldeak (% 25,3, % 20,0 eta % 21,0). Erosketa gutxiago egin dituztela uste duten pertsonen taldea aldiz txikitu egin da (% 17,0, % 20,6 eta % 17,4).

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxeko erosketak datozen 12 hilabeteetan¹ —
(pertsoneen %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

11 etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoa sendoa da

EAEko familien % 0,9k uste du etxebizitza bat erosiko duela datozen hamabi hilabeteotan, eta ehuneko hori aurreko aldietakoaren antzekoa da. Hala, EAEko etxebizitzaren salerosketan¹ 15.379 operazio egin dira (urtarrila-uztailean metatutakoa) eta urte arteko hazkundea % 25,0koa da, % 18an gaindituz 2019koa (13.026 salerosketa).

— Etxebizitza erosteko asmoa —


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



Ibilgailu bat erosteko asmoa duten EAEko familien ratioak hobera egin du (% 5,6) aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta (% 4,9 eta % 4,7). Aurten (urtarrila-uztaila), 19.623 ibilgailu berri² saldu dira EAEn (+% 19,7 urte arteko tasan). Hortaz, azken datuak hobetu egin dira (urtarrila-abuztuan metatutakoa, 2020-2024ko batezbestekoa, 16.232 unitate), baina urrun daude pandemiaren aurreko mailetatik (urtarrila-abuztuan metatutakoa, 2018-2019ko batezbestekoa, 28.094 unitate).

— Ibilgailua erosteko asmoa —

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

12 | oro har, kontsumoaren eta inbertsioaren igurikimenek hobera egin dute apur bat

Hirugarren hiruhilekoko emaitzek berretsi dute kontsumo-adierazleak finkatu egin direla, ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko igurikimenekin oso lotuta. Hala:

- Prezioen hazkundearen gaineko igurikimenak negatiboak dira (-18) eta oraingo erritmo berean igoko direla da nagusi. 2025ko behin-behineko balantzea (-12) urrun dago 2024ko optimismotik (+4), prezioen igoera geldoagoa aurreikusi baitzuen. Datuek berretsi dute inflazioak behera egiten jarraitzen duela, baina, beharbada, nahi baino motelago.
- Erosteke unearen balorazioa (-13) da azken hiruhilekoan gehien hobetu den elementua (+10 puntu). Hortaz, 2025eko behin-behineko balantzea (-17, hiru hiruhileko) aurreko bosturtekoarena baino hobea da (urteko batezbestekoa, 2020-2024, -21). Aurreko bosturtekoan eragina izan baitzuten pandemiak eta (batez ere) inflazioaren gorakadak.
- Etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoa egonkor mantendu da, hobekuntza txikiaren profilaren barruan. Datu objektiboek erakusten dute etxebizitzaren salerosketek gora egin dutela (urtarrila-ekainean metatutakoa, 15.379 operazio, +% 25,0eko urte arteko hazkunde-tasa) eta pandemia aurreko zifrak hobetu direla dagoeneko (2019an 13.026 unitate). Kontrara, ibilgailu berrien hazkundera (urtarrila-abuztuan metatutakoa, +% 19,7, 19.623 unitate) ez da nahikoa izan pandemia aurreko balioetara iristeko (2018-2019ko batezbestekoa, 28.074 unitate).

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2022</u>	<u>2023</u>	<u>2024</u>	<u>IV H-24</u>	<u>I H-25</u>	<u>II H-25</u>	<u>III H-25</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-48	-6	4	-1	-15	-18	-18	0	
Erosteke unearen balorazioa	-34	-27	-19	-12	-16	-23	-13	+10	
Erosketak egiteko igurikimenak	-11	-7	-1	1	4	0	2	+2	


⇔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2022	2023	2024	IV H-24	I H-25	II H-25	III H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-2	-4	-6	-6	▶
• EB*	-22	-17	-13	-12	-13	-15	-15	▶
○ Frantzia*	-18	-17	-14	-15	-13	-17	-18	▶
○ Alemania*	-20	-15	-11	-10	-12	-10	-10	▶
○ Danimarka*	-14	-8	-5	-6	-10	-14	-13	▶
○ Herbehereak*	-25	-18	-11	-12	-16	-18	-14	▲
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-13	-19	-21	-22	▶
• Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-4	-6	-9	-9	▶
• Langabezia	-1	-4	2	5	5	4	2	▶
• Aurrezkia	-2	-2	2	3	1	4	4	▶
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-48	-6	4	-1	-15	-18	-18	▶
• Erosteke unearen balioztapena	-34	-27	-19	-12	-16	-23	-13	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	-11	-7	-1	1	4	0	2	▶
Erosketa handiak. EAE**								
• Etxebizitza	1,2	0,6	0,5	0,6	0,8	0,9	0,9	▶
• Autoa	6,5	4,3	5,5	5,8	4,9	4,7	5,6	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* III. hiruhilekoko datuak uztaila-abuztua batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	2022	2023	2024	IV H-24	I H-25	II H-25	III H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-2	-4	-6	-6	▶
Adin-taldeak								
• 25 eta 39 urte bitartean	-4	-10	-9	-11	-9	-14	-7	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-14	-9	-3	-3	-1	-9	-1	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	-11	-6	0	1	-6	0	-4	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-14	-12	-2	6	-2	5	-17	▼
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	-10	-7	-4	-4	-5	-9	-4	▲
• Langabea	-19	-23	-17	-13	-9	-9	-2	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-12	-9	0	5	-2	3	-11	▼
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-22	-20	-16	-14	-17	-11	-12	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-11	-9	-5	-3	-5	-8	-6	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	-1	-1	3	4	0	-1	-3	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	III H – 24	IV H – 24	I H – 25	II H – 25	III H – 25 _b	(azkena)
BPG	2,3	2,0	2,1	2,2	--	II. Hiruhilekoa
Familien kontsumoa	1,9	2,2	2,6	2,9	--	II. Hiruhilekoa
Afiliazioa	-1,2	1,7	-0,4	0,9	-1,2	uztaila-abuztua
Erregistratutako langabezia	1,6	-1,1	0,7	-3,5	2,0	uztaila-abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,7	0,8	-0,1	1,5	--	II. Hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	32,6	-5,1	8,5	-5,8	-3,1	uztaila
Ibilgailuen matrikulazioa	-10,4	33,3	-15,8	27,7	-9,3	III. hiruhilekoa

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatzeko da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonak duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzaileen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobeagorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2025ko abuztuaren 25etik irailaren 05era (2025ko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm

